



Artxibolkoa

Mundu hotz eta orekatu gisara begiratu ohi zaio medikuntzari, poliki-poliki eta zarata handirik atera gabe aurrera egiten duena, arazoak ikusi, aztertu eta ahal dela irtenbideak emanez. Azkenaldian, ordea, bi berrik aztoratu egin dute: batetik, gizonezkoen inpotentzia ordu batzuek gainditzea lortzen duen Viagra izeneko pilularen agerpenak; bestetik, minbizia sendatzen omen duen mirakuluzko botika-koktelaren asmakizunak.

Viagra

Beñardo Kortabarria*



Erekzioa lortzeko edo erekzioari eusteko zailtasuna dutenei konponbidea eman die Viagra izeneko pilulak. Pilulak ez du erekzio-zailtasuna sendatzen, erekzioa lortarazi eta erekzioari eustea ahalbidetu baizik. Pilularen eragina pasatzen denean erekzio-rako zailtasuna hortxe egongo da. Viagra Estatu Batuetan sortua da, eta bedeinkazioa ere hantxe jaso du. Izan ere, Estatu Batuetako hainbat unibertsitatetako urologia departamentuetako ikertzaileek osatutako talde batek sakon

ikertu zuen Viagra pilularen eragina. Maiatzaren erdialdean argitaratu zen ikerketak hauxe ondorioztatu zuen: "Sildenafil (Viagraren osagarria) eraginkorra da eta gaixoei ondo onartzen dute. Dena den, ez du sexu-gogoa areagotzen. Ondorio horietara iristeko, aipatu ikertzaileek 532 gizon izan zituzten tratamendupean 24 astez, sexu-harremana izan baino ordu bete lehenago 25, 50 edo 100 miligramo sildenafil emanez, edo placebo bat emanez. Lanaren bigarren fasean 329 gizonzori sildenafil eta placeboa

eman zitzaizkien 12 astez. Lana amaitzeko, fase bietan parte hartu eta beste eraginik nozitu ez zuten gizonei, beste 32 astez eman zitzaizkien botika. Sildenafil-dosia gehitzearekin erekzioaren iraupena eta penetrazioaren hobekuntza etorri ziren, % 69ko arrakasta Viagra hartu zutenen artean eta % 22 placeboa erabili zutenen artean.

Botika segurua?

Erekzioa lortu eta mantentzeaz gain, buruko mina, aurpegia gorritzea, eta digestio-arazoak izan zi-

tuzten botika hartzearen ondorio modura. Beraz, berme osoko botika dirudi Viagrak, eragingarria eta bestelako ondorioz ez duena. Maiatzaren erdialdeko kontuak ziren horiek, gerora Estatu Batuetatik heriotza-hotsak iritsi baitira, antza denez Viagrarekin zerikusi zuzena izan dezaketenak. Komunikabideek argitaratu dutenaren arabera, Viagra pilula beste botika batzuekin nahastearen ondorioz eta sexu-harremanak izatean egindako ahaleginen ondorioz 16 gizonezko hil dira Estatu Batuetan. Hala eta guztiz ere, Viagra droga segurua dela diote adituek, hildakoek beren gorputzek ahal zutena baino esfortzu handiagoa egiteagatik hil zirela baitiote, gorputza behartzeagatik alegia. “Viagra erabiltzen dutenek —zioten adituek— burua ere erabili behar dute. 60 urtetik gorakoak dira hildako 16 gizonak.

Erekzio-zailtasuna arazo-iturri

Viagra pilularen eraginkortasunean edo balioan sartu gabe, denborak eta erabiltzen dutenen errealitateak argituko baitu hori, komerzio litzateke gaitzean bertan geldione bat egitea, hau da, erekzio-zailtasunean. Jatorriari edo arazoiei begiratuta, inpotentzia-mota bat baino gehiago bereizten da. Arruntenak, gaixoen % 75ean eragina duenak, jatorri fisikoa du, eta hedatzeko arazoak beste era bateko gaixotasunetan aurkitu behar dira; diabetesa eta bihotzeko gaitzak batez ere, baina baita nerbio-arazoak, traumatismoak, ebakuntzak, tabakoaren eta alkoholaren gehiegizko kontsumoa, etab. Erekzio-zailtasunerako gainerako % 25ek, beraz, arazo psikologikoak ditu, estresa eta antsietatea nagusiki. Adituen arabera, erekzio-zailtasunei aurre egin ahal izateko eragozpenik handiena kaltetuaren jarrera bera izan ohi da, behar bezalako gizona ez dela pentsatzen baitu gaixoak eta, ondorioz, ez du urologoarengana


edo andrologoarengana joan nahi izaten. Modu berean, sexua biren kontua izanik, bikotean arazo ugari sortarazten ditu. “Araza ez da berdina —dio Iñaki Carrerak, Irusta kolektiboko kideak— sekula erekzio bat lortu ez duenarentzat, edo baldintza jakin batzuetan eta inguru zehatz batean lortu izan duenarentzat. Garbi dago arazo ezberdinen aurrean gaudela, arazo desberdinak baitaude arazo horien gibelean; beraz, konponbidea ere desberdina izan ohi da gehienetan. Viagra erekziorako zailtasunak dituen edonori zuzendu nahi zaio, horrela

Frigidotasun-arazoa, esate batera, ezkutatu egiten da, ez omen du garrantzirik. Zergatik? Emakumezkoek orgasmoa simulatzeko gaitasuna dutelako? Gizonezkoek ezin dutelako erekzioa simulatu? Erekzio-zailtasunak konpontzeko beste bide batzuk ere badaude; sexua bizitzeko beste era bat alegia.


Eta emakumezkoentzat zer?

Frigidotasuna aipatzean, emakumeak izan ditu gogoan Iñaki Carrerak. Berak bezala, Viagraren fabrikatzaileek emakumezkoa dute orain helburu, emakumezkoa-

Orain arte erekziorik lortu ez dutenek miretsi dute bereziki Viagra, ondoko eskeman ikus daiteke Viagraren formula kimikoa.



5-[2-etoxi-5-(4-metilpiperazin-1-ilsufonil)fenil-1-metil-3-propil-6,7-dihidro-1H-pirazolo[4,3-d]pirimidin-7-ona



Artxibokoa

saldu nahi da, eta argi dago ez dela hori bide zuzena. Sendagileak bezeroari une jakin batean eskaintzeko beste tresna bat gehiago bezala hartu behar da, hots, terapia bat gehiago bezala.

Gizarte falokratiko batean bizi gara eta harremanetan faloari ematen zaio garrantzia, ariketak, jolasak, teknikak etab. alboratuz, bizitza sexuala aberastu eta sexu-harremana, bikote-harremana, lantzeko balio duten beste bide horiek alboratuz.

ren orgasmoa erraztu ahal izango duen produktuaren bila baitabil-tza. Zentzu horretan, aurrerapausoak ere eman dituzte eta 2000. urterako prest izango dutela aurreratu dute. Mundu osoko emakumezkoen erdiak ez omen du sekula orgasmorik izan. Hori horrela bada, emakumezkoentzat prestatuko duten “Viagrak” arazoa konpondu egingo luke, baita betirako aberastu ere pilularen asmatzailea eta fabrikatzailea.





Zeharka bada ere, Viagrak izan dezake erektzio-zailtasunekin bizi direnak lñaki Carrerak aipatzen zituen sexua bizi izateko beste bide horietara hurbiltzeko eragina. Izan ere, geure artera iristen denean, Viagrak errezeta ekarriko du berekin; hau da, Viagra eskuratu nahi duenak sendagilearen kontsultara joan beharko du, eta hori orain arte sendagilearengana joan ez den gaixoarentzat urrats berri eta desberdin bat izango da. Sendagileak erabaki beharko du gaitzari zein sendabide eman, bikoteterapia, Viagra, edo erektzio-arazoei aurre egiteko orain arte erabili ohi diren gainerako terapiak: autoinjekzioak, huts-tresnak eta protesiak. Erektzio-arazoak dituztenen % 40k autoinjekzioa aukera-

tu izan du orain artean. Sexu-harremana izan baino ordu-erdi bat lehenago gizonak berak jartzen du injekzioa, zakilera odola sartzea ahalbidetzen duen injekzioa. Esztazio-egoera normalean zakileko zainak odolez betetzen dira; zainen konpresioak odola kanpora irtetea eragozten du erektzioa eraginez. Konpresioak dirauen bitartean irauten du erektzioak. Ondorio bera lortzen da injekzioen bidez.

Huts-tresnak arazoa dutenen % 15ak erabiltzen ditu. Zakila hutsa eragiten duen zilindro batean sartzen da eta airea ateratzerakoan odola sartzen da zakilean erektzioa eraginez. Erektzioari eusteko, berriz, zakila lotu egiten da behealdean.

Protesia litzateke sendabideen artean azkena. Silikonazkoak dira gehienak; oso garestiak izateaz gain, ebakuntza eskatzen dute eta, gero, ez dago atzera egiterik. Aipatutako testuinguru honetan agertu da pilula miragarria: neurri handi batean konponbidea ziurtatzen du, oso erraz hartzen da, eta "ez du bestelako eraginik".

Farmaziak modan

Esandakoagatik, behar bada, jende-uholdea eragin du Viagrak farmazietan; eta baita harridura sortu ere, ez baitzen uste erektzio-zailtasuna zuten gizonezkoen kopurua hain handia zenik. Argitaratu diren datuen arabera, herrialde garatuetan gizonezkoen % 15ek inpotentzia-arazoren bat izango luke eta portzentaia % 35era igozten da 40 urtetik gorakoan artean. Arazoak ez du heriotzarik eragiten, baina —adituek diotenez— bai ondorio latzak beratu pairatzen dutenentzat, frustrazioa eta errudun-sentsazioa lehenik, eta bikote-arazo larriak, sarritan bikote-harremena deuseztera darmatenak, ondoren. Estatu Batuetan, Gibraltarren, Suitzan eta Andorran saltzen da Viagra oraingoz, eta 30 pilulako potetxoak 62.000 pezeta balio du. Espainiako Estatuan, dirudienez, udazkenean egingo dira aprobak eta datorren urtean jarriko da salmentan, bitartean Andorra berriz ere modan.

Pilularik ez minbiziarentzat

Pilulez eta laborategietako ikerketa-alorraz ezer gutxi daki Jesus Mari Karrerak; minbiziak, ordea, bai badaki. Izan ere, Ospital Onkologikoan 22 urte daramatza lanean eta denbora horretan denetarik ezagutzeko aukera izan du oriotar honek. Premiarik larriena bertan izanik, pentsa zitekeen mirakuluzko botika-koktelaren berriak Onkologikoa moduko tokietan sortuko zuela zala-

partarik. Jesus Mari Karrerak dioenez, ordea, errealitatea oso bestelakoa izan da, "sarri-askotan ateratzen baitira antzeko berriak".

Angiogenesiaren inguruko ikerketa hauek aspalditik ezagutzen baitira, eta teoriak badu bere logika. Tumoreak, garatzen hasten denean, elikagaiak eskuratu behar ditu eta hori bi eratara egiten du: batetik, sendotuz eta areagotuz; bestetik, zain berriak



sortuz. Angiogenesisaren oinarrian bigarre-na dago, hau da, zain berriak sortzeko gaitasuna eragozte da bere egitekoa. Atera berri diren produktuek angiostatina eta endostatina, biak somostatinararen azpi-produktuak, itxuraz badute zain berriak sortzeko gaitasuna eragozteko ahalmena. Jesus Mari Karrerak, hala ere, zuhurtasun handiz irakurri du berria. *“Tumoreei erasotzeko bide desberdinei jarraitu zaie orain arte: kirurgiari (tumoreak ebakiz), erradioterapiari (gune jakin bateko zelula txarren hazkundera oztopatuz) eta kimioterapiari (zelula txarren hazkundera oztopatuz). Usuenak diren bide horiei laguntzeko, beste batzuen artean, hormonoterapia eta immunoterapia leudeke. Eta hauek dira orain arte onartu eta egiaztatu diren bideak.*

Angiogenesiak tumoreak desagertarazteko benetako gaitasuna balu, guxtienez bi abantaila ekarriko lituzke: ez legoke ebakuntzarik, ezta toxikaziorik ere”.

Dena den, oriotarraren ustez, berria benetako izatetik urrun samar dago oraindik. *“Beno, kontuan hartu behar da orain arte egin*

dena laborategietan baino ez dela egin, eta alde horretatik farmako esperimentalak direla. Gainera, orain arte arratoietan bakarrik erabili da, eta arratoiak ez dira gizakiak. Produktua benetan hain sinplea eta hain eraginkorra den edo ez ikusteke dago oraindik”. Jesus Mari Karrerak ez du ikerketa irakurri, egunkarrietan agertu dena bakarrik ezagutzen du; eta irakurritakoak ez dio sinesgarritasun handiegirik ematen. *“Sinpleegia iru-*



B. Kortabarria

Jesus Mari Karrerak dioenez, prebentzio-lanak du garrantzi handiena minbizien aurrean.

“Orain arte egin dena laborategietan egin da eta arratoiekin bakarrik esperimentatu da, eta arratoiak ez dira gizakiak. Oraindik ikusteke dago, beraz, produktua benetan hain sinplea eta eraginkorra den.”

ditzen zait. 10 arratoiri eragin handiko produktu hori sartu diote, beste 10i suero fisiologikoa (ura gatzarekin); ez zaio gaitzari maila berean erasotu, eta teknikoki hori ez da serioa. Gainera, lagin-kopurua txikia da oso, 10 arratoi oso gutxi dira. Ez da aipatzen zein tumore-mota sartu zaien arratoi horiei, ezta zenbateraino desagertu zaien ere... eta ezin da jakin gizakiengan zein eragin izango duen”.

Zoritzarrez —berak dioen bezala— mesfidantzaz begiratzen dio Jesus Mari Karrerak berriari eta zuhurtasunez jokatzeari gomendatzen du. *“Hainbeste jende sufritzen ari denean, eta esan dena egia den edo ez ikusteke oraindik urte asko behar direnean, albistea horrela ematea ez da etikoa. Itxaron beharra dago eta horrelako berriak zuhurtasunez hartzea komeni da. Ikerketak, berez, ez dirudi lekuz kanpo dagoenik, baina oraindik zalantza gehiegi daude horrela bat-batean botatzeko. Zoritzarrez ez dut uste epe motzera lan barik geratuko garenik, tumoreetaz ez dakiguna dakiguna baino gehiago delako. Azken 10 urteetan hasi dira zelularen*

egitura zehatzetara iristen, lehen urratsak ematen. Minbizia gaitz gogorra da, zaila eta konplikatu, gehiegizkoa bat-batean ateratako bi botikekin konpontzeko. Garrantzitsua da tumorea sortzen denerako tratamendua izatea, baina garrantzitsuagoa da gaixotasuna bera desagertaraztea prebentzioan lan eginez”.

* Elhuyar

